

## **Dependentzia bizi gara**

*Euskaldunon Egunkaria, 1991-09-01: 2.*

Gizakiaren sen bereziena askatasunari dagokiona da, bere historia, askatasunaren kronika besterik ez baita; bestalde, gizon honek haginkerian seta beraz aritu den beste norbait izan du beti aurrean. Herri mailan, berriz, ezaguna da Erromaz gero bizirik irauteko gureak egin behar izan duen borroka latza; txikia delako, eta alboetan inperioak eraikitze lanen poderioz harrotu eta sartaldean kabitzen ez den Eguzki famatu hark oraintsu begietan "cara al sol" jo eta gero ere despotismoaren gure herriaren hizkuntza eta eskubide naturalaren aurkako eraso ez da amaitu. Orain ez dira aintzina bere mende zeukaten trianguluko begibakarra zen Jainkoaren izenean ari ("hori atzo"ko Antiguaia da!), edo Armadako Legearen aginduz (Demokrazian bizi gara!), edo munduko legea halaxe zelako denentzako (eta batez ere guretzat!). Eta azkenaldi berritu eta "progre" honetan ere ez dute konstituzioz emandako Estatutua bera ere soka apur bat luzatzeko besterik erabiltzen; beti geu gara atzeratu, zeken eta berekoi.... Bitartean, mundua bere bidetik dihoala, gutxien uste dugunean, eta dutenean!, azken juizioan bezalako tronpetak jo du "munduko pobreen" askatasunaren alde..., eta nondik, eta abesti horren arrimoan askatasunaren aurka gogorren, zuhurren eta mixerableen ekiten zuten SESBetik bertatik: esklabu ziren gizon eta herriek, denek batera, eten dituzte lokarriak eta hautsi zepoak. Eta, hala, azkenean, herenegun goizeko hamarretan, gosalduta eta gero, PSOE-PSEko bozeramale den Rosa Díez andreak aurrikusi du gure etorkizuna: "Soviet Errepublika Sozialisten Batasun"ean gertatzen ari den prozesuak ez du Euskadin inongo eraginik izango.